

EUSKO JAURLARITZA

EKONOMI GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

(izena)(e)k, (.....) NAN zenbakia duenak eta (kalea, solairua...), (posta kodea eta herria)n kokatzen den (udalaren izena)(e)ko alkate denak, (udalaren izena)(e)ko udalaren izenean eta hura ordezkatzuz, honako hau

AZALTZEN DUT:

2021eko maiatzaren 12ko EUSKAL HERRIKO AGINTARITZAREN ALDIZKARIAN argitaratu zen Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariaren 2021eko maiatzaren 4ko Ebazpena, zeinetan ERABAKI baitzen 2030erako EAEko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Planaren hasierako bertsioa eta ingurumen-azterketa estrategikoa jendaurrean jartzea 45 egun balioduneko epean.

2021eko uztailaren 2ko EHAAn argitaratu zen Ingurumenaren Kalitate eta Ekonomia Zirkularreko zuzendariaren 2021eko ekainaren 16ko Ebazpena, EAEko 2030erako Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Planaren hasierako bertsioa eta haren ingurumen-azterketa jendaurrean jartzeko epea zabaltzen duena.

Idazki honen bidez, hainbat **ALEGAZIO** eta **ESKAERA** formulatzen dira emandako epean.

ALEGAZIOAK

ALDEZ AURRETIKOA.- Euskararen trataera.

Maiatzean jendaurrean jarri zen dokumentazioa gaztelania hutsez argitaratu zen. Gerora, epea luzatzearekin batera, dokumentazioa euskaratuta zintzilikatu zen, egindako akatsa nolabait zuzendu nahian, nahiz eta ez zen inon aipatzen berriz argitaratzeko arrazoia hizkuntza izan zenik, hau da, dokumentazioa euskaraz ere eskaintzea.

Tamalez, ikusten dugu aurkezten den dokumentazioaren zati batzuk euskaraz ageri badira ere, testu osoa ez dagoela bi hizkuntzatan. Hain justu, “funtsezko jarduerak” deskribatzen diren zatia (*acciones claves*) gaztelera hutsez argitaratu da.

Testu administratiboak gaztelera hutsez jasotzean urratu egiten dira Europako legeria eta, horrez gain, batetik Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutua, eta bestetik azaroaren 24ko 10/1982 Euskararen erabilera normalizatzeko oinarriko Legearen 2., 3. eta 4. artikulua, zeintzuetan euskarari hizkuntza ofizial izaera ematen baitzaio, eta hizkuntzarekiko hainbat eskubide onartzen eta aitortzen baitzaizkie euskal herritarrei, besteak beste, diskriminatuak ez izatearena.

Bestalde, ezin ahaztu testu administratiboak gaztelera hutsez argitaratzeak berekin dakarrela Euskararen Legearen 8. artikulua “herri-agintariei” ematen dien mandatua ez betetzea, “*administrazioaren jakinarazpen eta adierazpenak bi hizkuntzetan idatzita*” egon behar baitira.

Hortaz, eskatzen da:

- **Dokumentazio osoa euskaraz jartzea jendaurrean.**

- Behin dokumentazioa behar bezala argitaratu ondoren, berriz ere jendaurreko epea irekitzea.

Lehena.- HONDAKINEN PLANEK LOTURARI ETA MAILARI BURUZKO ZEHAZTASUNAK JASO BEHAR DITUZTE, ERAGINKORRAK IZATEKO HELBURUAREKIN.

Euskal Herriko ingurugiroa babesteko otsailaren 27ko 3/1998 LEGE orokorrak honakoa dio, batetik:

70. Artikulua:

*2.- Planek **espreski adieraziko dituzte loturari eta mailari buruzko zehaztasunak**. Baita beren iraupen eta indarraldia ere, ziklo eta jarduera ekonomiko industrialetara moldatuko dena plangintzaren egonkortasun eta eraginkortasun egokia bermatzearren.*

Eta bestetik, 73. artikulua haxe adierazten du "Ingurugiro-organoaren eskumenei buruz":

1.- Hiriko hondakin solidoen esparruan eta udal-erakundeena izan daitezkeen eskumenei kalterik gabe, indarrean dagoen legeriaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurugiro-organoari dagokio hiriko hondakin solidoak kudeatzeko esparru-plangintza prestatzea.

.../...

2.- Halaber Euskal Autonomia Erkidegoko ingurugiro-organoari dagozkie:

a) Baldintzak ezartzea ingurugiro-babeseko estandar handiak bermatuko dituzten hondakin-kudeaketako azpiegiturak kokatzeko, ezartzeko eta ustiatzeko, eta Euskal Autonomia Erkidegoko esparruko irizpide-batasuna definitzea.

b) Hondakin-kudeaketan sortzen ari diren sistemak ontzat ematea ingurugiroaren ikuspegitik.

Hori guztia, ingurumen-lege autonomiko horretan "foru-organoen" eskumenei buruz xedatutakoa ahaztu gabe.

Horrez gain, Lehenengo ALDIBATERAKO XEDAPENAK haxe adierazten du:

Lehenengoa.-

*1.- Lege honen 73. atalean aurreikusten den **esparru-plangintza onartzen ez den bitartean**, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako lurralde historikoetan erabat **aplikatzekoak izango dira** beren foru-organoek hiriko hondakin solidoak kudeatzeko onartuta eduki ditzaketan plan integralak.*

2.- Esparru-plangintza onartzen denean, horren jarraibidetara moldatu beharko dute aipatutako foru-planek.

Aurreko xedapenen edukiaren arabera, eta planen arteko hierarkia nahiz planei buruz eskatzen den gutxieneko edukia kontuan hartuta –horien arabera, lotura eta mailari buruzko berariazko adierazpena izan beharko dute nahitaez–, **ondorioztatzen da hondakin planek** (esparru-planak barne) **arau eta erregelamendu izaera** izan beharko dutela **eraginkortasunak izango badira**, eta horixe da jendaurrean jarri den planaren kasua.

Oso bereziki, 5.2 puntuan hainbat helburu estrategiko aipatzen dira, esaterako: hondakin % 85 sailkatuta biltzea 2030erako, bildutako hondakin % 85 bigarren mailako baliabide bihurtzea, balorizazio energetikoa % 15 baino txikiagoa izatea eta,

horrez gain, hondakinen deuseztatzea %15etik beherakoa izatea. Bada, helburu horietara iristeak nahitaezkoa izan beharko luke plan honetan, bilketaren eta kudeaketaren ardura dutenek bermatu dezaten benetan erdiesten direla.

Aitzitik, plan hau idazterakoan aukeratu eta erabiltzen diren hainbat aditz, hitz eta esamoldek borondate lotesle edo betearazlerik eza islatzen dute gehienetan, nahiz eta legez bete beharreko zehaztapenak aipatzen diren. Sarritan errepikatzen dira “sustatu, lagundu, gomendatu...” edota antzekoak, “behar, debekatu, bermatu...” gisakoen orde.

Adibidez, 6.3.2.1. puntuan “*Instalazioak diseinatzeko irizpideak*” adierazterakoan, “*ahal den neurrian*” esamoldea erabiltzen da askotan, besteak beste hondakinen hierarkia betetzeari dagokionez. Eta hondakinen hierarkia nahitaez errespetatu beharrekoa da.

Hortaz, Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Planak eta hura osatzen duten dokumentuek izaera arau-emailea eta loteslea izan behar dute, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean xedatutakoaren arabera.

Bigarrena.- JENDAURREAN JARTZEN DEN DOKUMENTUAK, BERE IZENDAPENAREN BAITAN, IZAERA ETA EDUKI BIKOITZA IZATEKO HELBURUA DU: BATETIK “PREBENTZIO PLANA” ETA BESTETIK “KUDEAKETA PLANA” . Hori horrela izanik, PLANAK EZ DU BETETZEN APLIKATU BEHARREKO ARAUDIAK ESKATZEN DUEN GUTXIENKO EDUKIA, ASMO GUTXIKOA BAITA.

Hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legearen 14. artikulua Hondakinen Kudeaketako Plan eta Programei buruzkoa da eta, zehazki, 14.2. artikulua xedatzen du Hondakinen Kudeaketarako Erkidegoetako Planen edukia:

“Los planes autonómicos de gestión contendrán un análisis actualizado de la situación de la gestión de residuos en el ámbito territorial de la Comunidad Autónoma, así como una exposición de las medidas para facilitar”

“2. Las Comunidades Autónomas elaborarán los planes autonómicos de gestión de residuos, previa consulta a las Entidades Locales en su caso, de conformidad con esta Ley.”

“Los planes autonómicos de gestión contendrán un análisis actualizado de la situación de la gestión de residuos en el ámbito territorial de la Comunidad Autónoma, así como una exposición de las medidas para facilitar la reutilización, el reciclado, la valorización y la eliminación de los residuos, estableciendo objetivos de prevención, preparación para la reutilización, reciclado, valorización y eliminación y la estimación de su contribución a la consecución de los objetivos establecidos en esta Ley, en las demás normas en materia de residuos y en otras normas ambientales. Los planes incluirán los elementos que se señalan en el anexo V.”

Aipatu V. eranskinak, berriz, hondakinak kudeatzeko plan autonomikoen edukia adierazten du:

“1. Contenido mínimo de los planes:

a) El tipo, cantidad y fuente de los residuos generados dentro del territorio, los que se prevea que van a transportar desde y hacia otros Estados miembros, y cuando sea posible desde y hacia otras Comunidades Autónomas y una evaluación de la evolución futura de los flujos de residuos.

b) Sistemas existentes de recogida de residuos y principales instalaciones de eliminación y valorización, incluida cualquier medida especial para aceites usados, residuos peligrosos o flujos de residuos objeto de legislación específica.

c) Una **evaluación de la necesidad** de nuevos sistemas de recogida, el cierre de las instalaciones existentes de residuos, instalaciones adicionales de tratamiento de residuos y de las inversiones correspondientes.

d) Información sobre los **criterios de ubicación** para la identificación del emplazamiento y sobre la **capacidad de las futuras instalaciones** de eliminación o las principales instalaciones de valorización.

e) **Políticas de gestión de residuos**, incluidas las tecnologías y los métodos de gestión de residuos previstos, y la identificación de los residuos que plantean problemas de gestión específicos.

2. Otros elementos:

a) Los aspectos organizativos relacionados con la gestión de residuos, incluida una descripción del reparto de responsabilidades entre los operadores públicos y privados que se ocupan de la gestión de residuos.

b) Campañas de sensibilización e información dirigidas al público en general o a un grupo concreto de consumidores.

c) Los lugares históricamente contaminados por eliminación de residuos y las medidas para su rehabilitación.”

Era berean, Hondakinen Esparru-zuzentarauaren 2018ko bertsio bateratuak (Directiva Marco de Residuos) hauxe adierazten du “*Hondakinen kudeaketako planak*” izeneko 28. artikuluan:

“Artículo 28 Planes de gestión de residuos

2. Los planes de gestión de residuos presentarán un análisis actualizado de la situación de la gestión de residuos en la entidad geográfica correspondiente, así como una exposición de las medidas que deban tomarse para mejorar la preparación para la reutilización, el reciclado, la valorización y la eliminación de los residuos de forma respetuosa con el medio ambiente, y evaluarán en qué medida el plan contribuye a la consecución de los objetivos establecidos por la presente Directiva.

3. Estos planes incluirán, en la forma apropiada y teniendo en cuenta el nivel geográfico y la cobertura del área de planificación, al menos los elementos siguientes:

a) el tipo, cantidad y fuente de los residuos generados dentro del territorio, los residuos que se prevea que van a transportarse desde el territorio nacional o al territorio nacional y una evaluación de la evolución futura de los flujos de residuos;

b) principales instalaciones de eliminación y valorización existentes, incluida cualquier medida especial para aceites usados, residuos peligrosos, residuos que contengan cantidades significativas de materias primas fundamentales, o flujos de residuos objeto de legislación específica de la Unión;

c) una evaluación de la necesidad de cerrar instalaciones existentes de residuos y de infraestructuras adicionales de instalaciones de residuos, con arreglo al artículo 16.

c bis) información sobre las medidas destinadas a alcanzar los objetivos establecidos en el artículo 5, apartado 3 bis, de la Directiva 1999/31/CE o en otros documentos estratégicos que cubren todo el territorio del Estado miembro de que se trate;

c ter) una evaluación de los sistemas de recogida de residuos existentes, incluida la cobertura material y territorial de recogida separada y medidas para mejorar su funcionamiento, de las excepciones concedidas con arreglo al artículo 10, apartado 3, y de la necesidad de nuevos sistemas de recogida.

d) información suficiente sobre los criterios de ubicación para la identificación del emplazamiento y sobre la capacidad de las futuras instalaciones de eliminación o las principales instalaciones de valorización, si fuera necesario;

e) **políticas generales de gestión de residuos**, incluidas las tecnologías y los métodos de gestión de residuos previstos, o políticas sobre residuos que plantean problemas de gestión específicos;

f) medidas para combatir y prevenir todas las formas de vertidos de basura y para limpiar todos los tipos de basura dispersa;

g) indicadores y objetivos cualitativos o cuantitativos adecuados, en particular sobre la cantidad de residuos generados y su tratamiento y sobre los residuos municipales eliminados u objeto de valorización energética.

5. Los planes de gestión de residuos serán conformes a los requisitos de planificación de residuos establecidos en el artículo 14 de la Directiva 94/62/CE, a los objetivos establecidos en el artículo 11, apartados 2 y 3, de la presente Directiva y a los requisitos establecidos en el artículo 5 de la Directiva 1999/31/CE, y, a efectos de prevención de los vertidos de basura, a los requisitos establecidos en el artículo 13 de la Directiva 2008/56/CE del Parlamento Europeo y del Consejo (29) y al artículo 11 de la Directiva 2000/60/CE del Parlamento Europeo y del Consejo (30).”

Bestalde, hondakinen arloko prebentzioari dagokionez, Hondakin eta Lurzoru Kutsatuei buruzko 22/2011 Legeak honakoa dio hondakinak prebenitzeko programei buruzko 15. artikuluan:

“1. Las administraciones públicas, en sus respectivos ámbitos competenciales, aprobarán antes del 12 de diciembre de 2013, **programas de prevención de residuos** en los que se **establecerán los objetivos** de prevención, de reducción de la cantidad de residuos generados y de reducción de la cantidad de sustancias peligrosas o contaminantes, **se describirán las medidas de prevención existentes y se evaluará la utilidad** de los ejemplos de medidas que se indican en el anexo IV u otras medidas adecuadas. Estas medidas se encaminarán a lograr la reducción del peso de los residuos producidos en 2020 en un 10% respecto a los generados 2010. **La finalidad de dichos objetivos y medidas será romper el vínculo entre el crecimiento económico y los impactos sobre la salud humana y el medio ambiente asociados a la generación de residuos.**

2. Los programas de prevención de residuos **podrán aprobarse de forma independiente o integrarse en los planes y programas** sobre gestión de residuos u otros ambientales. Cuando los programas de prevención se integren en otros planes y programas, las medidas de prevención y su calendario de aplicación deberán distinguirse claramente.

3. Las administraciones competentes, con el fin de controlar y evaluar los avances en la aplicación de las medidas de prevención, **determinarán los instrumentos que permitan realizar evaluaciones periódicas** de los progresos realizados y podrán fijar objetivos e indicadores cualitativos y cuantitativos concretos.

4. La evaluación de los programas de prevención de residuos se llevará a cabo como mínimo cada seis años, incluirá un análisis de la eficacia de las medidas adoptadas y sus resultados deberán ser accesibles al público.”

Ildo beretik, Hondakinen Esparru-zuzentarauko 29. artikulua dio:

“1. Los Estados miembros elaborarán programas de prevención de residuos que fijen, como mínimo, las medidas de prevención de residuos que se establecen en el artículo 9, apartado 1, de conformidad con los artículos 1 y 4.

Estos programas estarán integrados en los planes de gestión de residuos que se exigen en el artículo 28 o en otros programas de política medioambiental, según proceda, o funcionarán como programas separados. Si cualquiera de dichos programas se encuentra integrado en los planes de gestión de residuos o en esos otros programas, los objetivos y las medidas de prevención de residuos deberán distinguirse claramente.”

Jendaurrean jartzen den dokumentuak elementu horiek guztiak jaso behar ditu, eta bere baitan bildu eta islatu behar lituzke benetako azterketak, neurriak, irizpideak eta baliabideak. Aitzitik, aurrez aipatutako eduki horiek guztiak modu nominalean edo

lekukotza gisa baino ez dira jasotzen zenbaitetan, nahiz eta Europatik datozen zuzentzarauk eskatzen duten eduki horiek guztiak zehaztasunez jasotzea eta, oro har, gauza bera gertatzen den hondakinei buruzko arauetan.

Horrez gain, zenbaitetan kontraesanak azaleratzen direla deritzogu, idatziz jasotzen dituen aurreikuspenak ez baitatoz bat planak aipatzen dituen helburu eta asmoekin. Horren erakusgarri, 6.3 “*Behar diren azpiegiturak*” puntua: lehenbizi isurketen desagerpena planteatzen den arren, puntu honetan deuseztatzeko edukiera 7,5 mm m³ handitzea proposatzen da. Eta hori, kontuan izanik isurketa hondakinen kudeaketa hierarkiaren azken urratsa dela, izan ere, Planak hondakin isurketen % 85eko murrizketa aurreikusten baitu 2030 urterako.

Hortaz, eskatzen dugu planak bere baitan jaso ditzala indarrean dauden legedi eta araudiek ezarritako edukiak, eta berma dezala eduki horiek bat datozela araudiek finkatutako ildoekin.

Hirugarrena.- DOKUMENTUAK EZ DU AIPATZEN “AARHUSEKO HITZARMENA”, EZ ETA INGURUMEN-INFORMAZOARI BURUZKO EUROPAKO ARAUDIA.

“Aarhuseko Hitzarmenak” Ingurumen arloko informazio publikoa eskuratzea, erabakiak hartzeko parte-hartze publikoa eta justiziarako sarbidea arautzen ditu, eta indarrean dago Estatuako barne-araudian 2005az geroztik.

Hitzarmen horrek dio herritarrek ingurumenari buruzko informazioa eskuratu behar dutela, batetik ingurumen osasungarrirako eskubideaz gozatzeko, eta bestetik hura errespetatu eta babesteko betebeharra bete ahal izateko. Horrez gain, legitimazioa izan behar dute erabakiak hartzeko prozesuetan parte hartzeko, eta orobat eskubidea izan behar dute justiziara jotzeko gorago aipatutako eskubideak ukatzen direnean.

Bestalde, Ingurumen arloko informazioa eskuratzeko, herritarren parte-hartzerako eta justiziara jotzeko eskubideak arautzen dituen uztailaren 18ko 27/2006 Legearen 16. artikulua jendearen benetako parte-hartze eraginkorra sustatzen du hondakinen inguruko planak egitean. Bertan jasotzen da, besteak beste, jendeak eskubidea duela oharra eta iritzia adierazteko aukera guztiak irekita daudenean, hau da, plan, programa edo xedapen orokorrari buruzko erabakiak hartu aurretik.

Kasu honetan aurkezten den dokumentua oso garatua dago eta ez du benetako parte-hartzea errespetatu, Legean aurreikusitako irismenarekin.

Hortaz, eskatzen da behar bezala bermatu dadila legedian eta Aarhuseko hitzarmenean markatutako parte-hartze prozesua.

Laugarrena.- HIRI-HONDAKINEN PREBENTZIO ETA KUDEAKETA ARLOKO ESKUMENEN TITULARRAK UDALAK BADIRA ERE, PLANAK EZ DITU BEHAR BEZALA AITORTZEN ETA ISLATZEN HAIEN ESKUMENAK.

Planak zenbait aipamen jasotzen ditu administrazioei esleitzen dizkien eskumenei (rolei) buruz. Pasarte horretan oso deigarria da zein gutxitan aipatzen diren udalak, nahiz eta beraiek diren hiri-hondakinen prebentzio eta kudeaketa arloko erakunde eskudunak. Horrek, praktikan, kalte larria eragiten dio toki-autonomiari; udalei (mankomunitate eta toki-erakundeak) erabakimenik gabeko kontrolatzaile paper hutsa ematen baitzaie (ikus 10. eranskina).

Kontutan hartu behar dira, batetik, 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen, eta bestetik 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.

Legedi horiek honako eskumen hauek aitortzen dizkiete udalei, hiri-hondakin solidoen kudeaketaz gain eta eskumen propio gisa:

"Antolamendu osagarria, Ingurumenaren sustapena, kudeaketa, defentsa eta babeseta eta garapen jasagarria", "Osasun publikoaren sustapena, kudeaketa, defentsa eta babeseta", "Hiri- edo udal-hondakin solidoak biltzeko eta tratatzeko zerbitzuak antolatzea, kudeatzea, ematea eta kontrolatzea, bai eta hiri- edo udal-hondakinen ekoizpena murrizteko plangintza, programazioa eta diziplina ere". (2/2016 Legearen 17. artikulua).

Bestalde, Hondakinei buruzko Legeak (22/2011 Legea, uztailaren 28koa, hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzkoa) hauxe adierazten du *"hondakinen kudeaketa"* definitzerakoan: bere gain hartzen ditu, hondakinak bildu, garraiatu eta tratatzeko eginkizunez gain, horien zaintza eta zabortegeiak itxi ondorengo mantentze-lanak, eta negoziatzaile edo eragile gisa egindako jarduerak ere bai.

Hortaz, **"Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Plan"** honek berariaz jaso beharko luke udalek hiri-hondakinak kudeatzeko duten berezko eskumena, bai eta Estatuko eta autonomia erkidegoko legeek udal-hondakinen arloan aitortzen dizkieten eskumen guztiak ere.

Bosgarrena.- PLAN HONETAN EZIN DA PLANTEATU HIRI HONDAKINAK KOORDINATZEKO ORGANOA (HHKO) IZAN DADILA "ORGANO BETEARAZLE ETA ERABAKITZAILA" OFIZIALA, ORAINDIK DEFINITU GABE BAITAUKA BERE IZAERA.

Aurreko alegazioren harira, jendaurrean jartzen den dokumentuan sarritan aipatzen da HHKO / OCRU delakoa, eta ez edonolako funtzioak emanaz gainera:

- Gobernantza hobetzeko tresna moduan (6.2.3. puntua. Lan-ildoak).
- Komunikazio-kanpainak bultzatzeko lan tresna moduan (9. eranskina)
- Koordinazio- eta lankidetzeta-lanak hiri hondakinen gaian, Eusko Jaurlaritzaren eta Foru Aldundien artean. (10. eranskina)
- Balorizazio-bide berriak identifikatu, ikertu eta ezartzeko tresna moduan (19. eranskina)

Horrez gain, Planaren 3. Funtsezko Jardueran (Actuación Clave 3) HHKO aipatzen da, jauzi kualitatiboa emanaz, eta proposatzen da bera izan dadila *"organo betearazle eta erabakitzaile ofiziala"*.

HHKO ez da administrazio-organo bat, ez ditu betetzen Sektore Publikoko Araubide Juridikoaren 40/2015 Legeak bere 5. artikuluan administrazio-organoei eskatzen dizkien baldintzak, eta ez da oinarritzen ez ein Lege Sektorialetan edo bestelako lege edo arautan. Bi administrazioen arteko koordinazio gune soil bat da, lankidetzako teknikan oinarritutakoa eta funtzio zehatzik gabekoa. Izatez, ez da lankidetzeta-organo bat, ez baitu betetzen 145. artikuluan ezarritakoa.

Hortaz, ikusirik Plan honek HHKOrri eman nahi dizkion edo planteatzen dizkion funtzioak ez direla legezkoak eta bere lankidetzeta jardunaz harago doazela, eskatzen da utz daitezela bertan behera organo betearazle eta erabakitzaile bilakatzeko asmoak.

Seigarrena.- HONDAKINEN PREBENTZIORAKO ETA KUDEAKETARAKO PLAN HONETAN AGERTZEN DIREN FUNTSEZKO JARDUERETAKO AURREKONTUAK ZEHAZGABEAK ETA HAINBAT KASUTAN DESEGOKIAK DIRA.

Plan bat behar bezala garatu eta gauzatzeko funtsezkoa da aurrekontu aurreikuspen kronologiko bat izatea. Aurrekontu horrek kudeaketaren egungo egoera jaso behar du

eta etorkizuneko beharrak ezarri behar ditu, horietan oinarrituta egiten baita aurrekontuaren denbora-banaketa.

Plan honek ez ditu definitzen aurrekontu-beharrak denboran zehar, baizik eta zenbateko bat esleitzen dio garatu beharreko ekintza bakoitzari. Gainera, planak ez du behar den informazioa ematen eta horrela zail da baloratzen proposatutako zenbatekoak arbitrarioak, zuzenak edo okerrak diren.

Dagoen informazioa aztertuta, gainera, badirudi hainbatetan akatsak daudela. Esaterako:

- 1. funtsezko jardueran, 30 MM € aurreikusten dira, 6MM urteko, baina datak ez dira zehazten (gauzatzeko urte kopurua).
- 8. funtsezko jardueran, 250.000 € aurreikusten dira, 50.000 urteko, baina 2021 eta 2030 artean gauzatzeko dela jartzen duenez, kopurua ez da nahikoa urte horiei guztiei erantzuteko.
- 10. funtsezko jarduera gauzatzeko aurrekontua 50.000 MM €-koa izango dela dio planak, baina kopuru hori akatsa dela ulertzen da, diru kopuru izugarria delako.

Ez da akats kontua bakarrik, kopuruak borobilegiak dira eta inolako justifikaziorik gabe agertzen dira. Nabarmena da plan honetan agertzen diren aurrekontuek lanketa sakonagoa behar dutela.

Hortaz, eskatzen da aurkez daitezela kronologikoki garatuta egongo diren aurrekontuak, diru kopuru horien partida zehatzagoak definituz, erabilpena zehaztuz eta antolaketa definituago bat adieraziz.

Zazpigarrena.- PLAN BATEK FINKATZEN DITUEN HELBURUAK BEHAR BEZALA BETETZEKO, PLAN HORREK NAHITAEZ JASO BEHAR DU BERE BAITAN JARRAIPEN PROZEDURA KRITIKO BAT. PLAN HONETAN, EZ ZAIO BEHAR BESTEKO TRATAMENDURIK ESKAINTZEN JARRAIPENARI.

Plan estrategiko batean funtsezkoa da “planaren jarraipena” eta, horrekin batera, baita ere ebaluazio edo “autoebaluazio” irizpideak finkatzea. Esaterako, Planaren jarraipenerako “Komiteak”, “Taldea” edota “Organoa” aipatzen diren arren, komeni da aurreikustea nortzuk osatuko dituzten batzorde horiek, nortzuen artean garatzeko den aipatzen den elkarlan publiko-pribatua, partaide bakoitzak zer nolako eginkizunak beteko dituen, etab.

Hortaz, eskatzen da jarraipen plan zehatzago bat izatea plan honen barnean, eta adierazleak kalkulatzeko formulez gain, orobat azaltzea nolakoak izango diren adierazle horien informazio-iturriak eta tratamendua, edo nola zabaldu eta kontsultatuko den jarraipenerako informazioa.

Zortzigarrena.- PLANAREN FUNTSEZKO JARDUERETAN AIPATZEN DIREN AZPIKO TESTUEI ONDORENGO ZUZENKETAK EGITEA ESKATZEN DA:

Planak 10 funtsezko jarduera zehazten ditu, eta horiek finkatzea oinarritzotzat jotzen da HPKP 2030 planaren emaitzak lortzeko. Hala ere, nahiz eta oso garrantzitsuak izan, Planak lehentasun-ordenaren arabera deskribatzen ditu, zehaztasunik gabe, eta funtsezko jarduera horietako bakoitzaren deskribapenaren fitxa espezifikoez oso informazio gutxi ematen dute:

8A. ACCIÓN CLAVE 1 “*Plan de inversión y hoja de ruta para apoyar las inversiones prioritarias que minimicen el vertido y fomenten la circularidad.*”

Funtsezko jarduera honetan besteak beste aipatzen da:

“Se plantea favorecer a través de ayudas del Departamento las inversiones necesarias más relevantes para reducir el 60% del vertido de residuos industriales no peligrosos. Para ello se establecerían como prioritarias en las Órdenes anuales de subvenciones de medio ambiente a empresas, y en paralelo se avanzaría en agilizar la tramitación de las empresas relacionada y ampliar la dotación económica de dichas ayudas”

Hortaz, eskatzen da funtsezko jarduera honen fitxan ondorengo esaldiak gehitzea:

- Hondakinen kudeaketaren hierarkiak ezartzen duen bezala (22/2011 Legea), prebentzioa lehenetsi behar da. Gauzak horrela, bermatu behar da hondakinen prebentzioa izango dela laguntza hauen helburua eta, hierarkiaren filosofia jarraituz, bermatu behar da ez dela diruz lagunduko hondakinak errausteko edo isurtzeko azpiegiturarik.

8B. ACCIÓN CLAVE 2 “*Garantizar la autosuficiencia de vertido de Euskadi hasta 2030, en paralelo a la minimización de vertido y adecuado cierre o clausura de vertederos existentes.*”

Funtsezko jarduera honetan besteak beste aipatzen da:

“A partir del análisis de situación de infraestructuras de vertido de RNP (3-4 MM m3 de déficit de capacidad para 2030) y de la prognosis de la generación y gestión de residuos realizada asumiendo el cumplimiento de los objetivos establecidos, fomentar las actuaciones necesarias para la suficiencia de instalaciones de vertido, garantizando el control de entradas y funcionamiento de dichas instalaciones por parte del órgano ambiental. Como alternativas se plantean: acciones con vertederos públicos (incremento capacidad remanente hasta 7,5 MM m3), fomentar la adecuación y transformación de vertederos de inertes en vertederos de RNP, fomentar las ampliaciones de proyectos de vertederos privados hasta un tope de 7,5 MM m3 con participación y control públicos, y clausurar y restaurar los vertederos al final de su vida útil y avanzar en la clausura parcial de vertederos existentes.

Gaur egun indarrean dagoen araudiaren arabera, isurketa azken aukera da hondakinen hierarkian (22/2011 Legea)

Hortaz, ondoko zuzenketak egitea eskatzen da:

Zaborteziak handitzeko aukera erabat murriztea (49/2009 Dekretua, otsailaren 24koa, hondakinak hondakindegietan biltegitratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duena, eta 646/2020 Errege Dekretua, uztailaren 7koa, hondakinak hondakindegietan biltegitratuta ezabatzea arautzen duena), eta era berean, zaborteziak ixteko datak eta kronologia zehaztea.

8C. ACCIÓN CLAVE 3 “*Desarrollos legislativos en materia de residuos (legislación marco, decretos de habilitación de nuevos usos y prohibición de vertidos)*”

Funtsezko jarduera honetan “*Descripción detallada de la acción*” ataleko lehen puntuan, besteak beste aipatzen da:

“Este desarrollo legislativo puede fomentar también medidas de fiscalidad ambiental como el pago por generación u otras.”

Ikusirik hondakinak kudeatzerakoan sailkapen tasa altua edo baxua izateak gaur egun ez duela eraginik ordainketak egiteko unean, eta ikusirik gainera, fiskalitatea oso tresna eraginkorra dela lortu nahi diren sailkatze-tasetara iristeko, hauxe eskatzen da: *“puede fomentar también medidas de fiscalidad ambiental como el pago por generación”* esaten duen lekuan, plan honek bermatu dezala sorkuntzaren araberako ordainketa-eredu bat. Eta esaldi hori *“Descripción detallada de la acción”* atalaren barruan kokatzen denez, beste hainbat ideiarekin nahaspilan, orobat eskatzen da planak zehaztasunez adieraz dezala zeintzuk diren ordainketa-eredu horren ezaugarriak eta ezartzeko prozedura.

8D. ACCIÓN CLAVE 4 *“Impuestos al vertido e incineración de residuos y a la extracción de áridos.”*

Funtsezko jarduera honetan besteak beste aipatzen da:

“El establecimiento de un Canon obligatorio y ajustado para la gestión de residuos se ha valorado, tras revisar los resultados del período 2015-2020, como fundamental para alcanzar los objetivos estratégicos y dar respuesta a las exigencias europeas en relación con la reducción de los materiales derivados a vertedero. Se pretende con él desequilibrar la competencia económica entre el vertido y el reciclaje a favor de este último.”

Kanon bat izatearekin ados egon arren, puntu honen barruan ondokoa jasotzea eskatzen da:

- Zabortegietara bideratutako materialei kanon bat jartzeaz gain, errausketara bideratutako materialei ere kanona jartzea.
- Hiru herrialdeetan errauste eta isuri kanonaren irizpide bateratu bat izatea.
- Kanon bidez jasotako diruaren % altu bat prebentziora eta Udaletara edota Tokiko Erakundeetara bideratzea, hondakinen kudeaketan hierarkia irizpideak betetzen direla bermatzeko.

8E. ACCIÓN CLAVE 6 *“Solución público-privada de almacenamiento intermedio, adecuación y control de áridos, tierras y otras materias primas secundarias.”*

2020an Zaldibarren gertatutako hondamendiaren kariatara, azpiegituren kudeaketa publiko-pribatua lehenestek kezka eragiten du, are gehiago, kontuan izanik funtsezko jarduera honetan ez dela zehazten administrazioak nola gauzatuko duen kontrol hori.

Horren harira, funtsezko jarduera honetan aipatzen da:

“Esta solución integral, a impulsar de la iniciativa público privada, velará porque se almacenen de forma correcta y se verifiquen los residuos que entran a plantas de valorización y materiales secundarios de salida, de tal forma, que se posibilite un mayor control de parte de la administración de estos materiales”

Ez da ulertzen ekimen publiko-pribatua nola har daitekeen kontrolaren bermetzat, gertakariak kontrakoa erakutsi dutenean.

Aipatzen da erabateko konponbide bat emango zaiola biltegitratzeari, baina ez da zehazten zein izango den konponbidea.

Gainera, azpiegitura baten aukera agertzen da, baina ez da adierazten zer izango den eta zein baldintza bete beharko dituen, zer gaitasuni erantzungo dion edota zein ezaugarri izango dituen.

Hortaz, eskatzen da azpiegitura horrek erabateko kudeaketa publikoa izatea, horixe baita kontrol eta baldintza egokiak betetzen direla bermatzeko modu eraginkorra.

8F. ACCIÓN CLAVE 7-“ *Apoyo a soluciones definitivas a los residuos plásticos y su desviación de vertedero*”

Funtsezko jarduera honetan, besteak beste aipatzen da:

“La actuación fundamental es garantizar la salida final de estos plásticos en empresas recicladoras y valorizadoras, y especialmente en instalaciones de incineración.”

Hori irakurrita, eta ikusirik erraustea dela plastiko horri jartzen zaion irtenbide nagusia, gogoratu behar da:

- Hondakinak ezabatzea eta erraustea azken aukerak direla hondakinak kudeatzeko hierarkian (22/2011 Legea).

Eta beraz, plastikoak “bereziki errauste plantetara bideratzea” helburu moduan planteatze hutsa, hondakinen kudeaketan jarraitu beharreko hierarkiaren kontrakoa da erabat.

Hortaz, eskatzen da prebentzioaren inguruko ekintza zerrenda bat osatu dadila, errausteko aukera lehenetsi beharrean, besteak beste, erabilera bakarreko plastikoak debekatuko dituen eta 19/904 EB Zuzentarauak finkatutako helburuak betetzeko ekintzak zehaztuko dituen.

8G. ACCIÓN CLAVE 9 “*Actuaciones para el fomento de la reutilización y el reciclaje de alta calidad de envases, incluyendo análisis y despliegue, si procede, de sistemas SDDR*”

Funtsezko jarduera honetan besteak beste aipatzen da:

“Debido al gap entre la situación actual y los objetivos de las directivas, tanto a nivel de reciclaje de envases ligeros, como de recogida selectiva de botellas de plástico de bebidas, como de disponibilidad de PET secundario es necesario analizar (y desplegar) alternativas de recogida de envases ligeros, como el SDDR para reciclaje. Adicionalmente, por el potencial existente para prevención y para reducir la huella ambiental se plantea evaluar (y desplegar en su caso) un SDDR para reutilización de envases de vidrio a nivel de persona consumidora, y fortalecer el SDDR para reutilización de botellas de vidrio ya existente a nivel de HORECA.”

Kontutan hartu behar da (EB) 2019/904 Zuzentarauak esaten duena: *merkatuan jartzen diren plastikozko botilen % 77 bereizita jaso beharko dira 2025erako eta kopuru hori % 90era iritsi beharko da 2029an. Hori dela eta, hainbat ekintza jarri behar dira martxan helburu horiek lortzeko.*

Hortaz, funtsezko ekintza hau ondorengo aipamenekin zuzentzea etaosatzea eskatzen da:

- “Reciclaje de alta calidad de envases” zer den zehaztu behar da, gauzatu beharreko ekintza zerrenda ahalik eta berme handienarekin ezartzeko.
- Ekintza hauen ezarpenerako epeak eta merkaturatze eta diseinu obligazioak jaso behar dira.
- Produktu berrerabilgarriak/konpongarriak eta birziklagarriak sustatzeko (diseinatu eta merkaturatzeko) ekintzak jaso behar dira.

- Ildo honen kontra doazen fluxuak, ekintzak, jokabideak, etab. debekatu behar dira, eta zigorrak jarri beharrezkoa denean.

Bederatzigarrena.- BIO-HONDAKINEK OSATZEN DUTEN LEHENTASUNEZKO KORRONTEARI BURUZKO ALEGAZIOAK:

Bio-hondakinak lehentasunezko hondakin-korrante izanik, planak ez du garatzen ia ezer horien inguruko prebentzioari eta kudeaketari buruz. Are gehiago, dokumentu osoan zehar ez dira aipatzen ez lurra, ez eta etxe-konposta, auzo-konposta edo horien antzekorik, nahiz eta 2018/851 Zuzentarauan (EB) honako hau esaten den 10. eta 22. artikuluetan:

“Estatu kideek bermatuko dute, beranduenez 2023ko abenduaren 31ean, bio-hondakinak jatorrian banandu edota birziklatzen direla, eta orobat bermatu beharko dute etxeko edo auzoko konpostatzea, hau da, bio-hondakinak bereizita jasotzen direla eta ez direla beste hondakin mota batzuekin nahasita.”

Hortaz, Plan horrek aipatutakoa betetzeko, eskatzen da bio-hondakinak kudeatzeko hainbat neurri sar daitezela plan honen barnean:

- Ekintza zerrenda bat osatzea elikagaien xahuketari buruzko gaur egungo egoeraren analisia egiteko eta bere prebentzioa eta bereizketa eraginkorra bultzatzeko.
- Udal guztiek bio-hondakinaren gaikako bilketa ezartzea herritarrak konpostatzera bultzatzeko.
- Bio-hondakinaren kudeaketan gertutasun printzipioa lehenestea.
- Neurriak hartzea bio-hondakinetatik sorturiko konpostaren erabilera anitza sustatzeko (nekazaritza, lorezaintza, obra publikoak, etab...).

Hamargarrena.- HIRI HONDAKINEN KALITATEARI BURUZKO ALEGAZIOA.

Hiri hondakinaren fluxuari dagokionez, inon ez da aipatzen hondakin horien bilketa selektiboaren “kalitatea”. Ezinbestekoa da bermatzea herri guztiek sailkatze-maila irizpide bera jarraituko dutela fluxu hori neurtzeko; hau da, herri guztiek irizpide bateratuak izan behar dituzte sailkatutako hondakinaren bilketa gordina eta garbia zenbatekoa den neurtzeko, eta halaber ezinbestekoa da inpropioen kopurua zenbatzeko neurri zehatz eta berberak izatea denontzat.

Hortaz, eskatzen da:

- Hondakinaren sorkuntza eta kudeaketaren datuak metodologikoki zehaztea, fidagarritasuna eta homogeneizazioa lortzeko asmoarekin.
- Goiko eskakizunak frakzio guztietan betetzen direla bermatzea.

Hamaikagarrena.- AZKEN ESKAERAK:

- Kontuan izanik errefusaren zati handi bat pixoihaiek osatzen dutela eta horien kudeaketa egokiak eragin handia izan dezakeela errefusaren prebentzioan, plangintza honetan agertu dadila ekintza sorta bat eta diru partida bat pixoihalen birziklapena bermatzeko.
- Plangintzak jaso dezala gailuen “Konponketa-eskubidea” delakoa.
- Oihalei eta etxeko hondakin arriskutsu/bereziei dagokienez, “ekoizlearen erantzukizun zabaldua” ezartzea.

- SDDR sistemak aurreikustea RAEEentzat (gailu elektriko eta elektronikoen hondakinak) eta baterientzat.
- Fluxu espezifikoetan (gurpilak, metala, etab.) zirkulartasuna bultzatzeko neurriak sustatzea.
- Nahiz eta planak Ekonomia zirkularraren EAeko planaren aipamena egiten duen, plangintza honek ez du zehazten garapena nola gauzatuko den. Hori dela eta, eskatzen da planak garatu dezala hori esplizituki.

Amaitzeko, eta jendurrean jartzen den Planaren espirituarekin ados bagaude ere, uste dugu planak apustu argia egin behar duela hondakinen sorkuntzari aurrea hartu, hondakinak jatorritik gertu kudeatu, eta horretarako irizpideak bermatu eta lehenetsiko dituen eredu baten alde.

(HERRIA, 2021eko uztailaren 20an.